


# ANAITASUNA

265. zenb.

1973.eko abenduaren 15ekoa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5  
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

## Euskaldunak eta erlijioa



Ez omen dago argi, euskaldunak noizdanik kristau diren. Euskal Herri osoaren kristautzea batzuek lehentxoago nahi lukete, besteek beranduxeago. Baina euskaldunak, kristautu aurretik ere, gizon erlijiosoak edo erlijiodunak izango ziren, noski. Geroztik indar haundia izan du erlijioak Euskal Herrian. «Euskaldun fededun» esaerak ba zuen, gutti arte, indarrrik gure artean. Eta erlijioaren eragina Euskal Herrian oraindik bizirik dagoela esango nuke nik.

Aspaldiko kontua da, erlijioari egun gutti gelditzen zaizkiola aldarrikatzea. Hala ere, erlijioa oraindik bizi da, gizonen onerako edo txarrerako. Bestaldetik, berriz, gaurko gizartea ez dela orain artekoak bezain erlijiosoa dioten abotsak ere ugaritu dira. Batzuek hori zoritxartzat hartzen dute; besteek, berriz, pozgarri aurkitzen dute bilakaera hori. Bilakaera hori benetako gertaera den ala ez, besterik da: erlijioaren desagertzea, frogatu gabeko teoria bezala baztertzen duten eritziak ere ez dira falta gaur egun.

Euskal Herrian ere ez dira falta, erlijioaren akabera aldarrikatzen duten abotsak. Aldarrikatzen ezezik, erlijioaren akabera beharrezkotzat jotzen dutenak ere ba dira, gizona bere buruaren jabe bilaka dadin. Bestaldetik, berriz, ba da Euskal Herrian erlijioaren eraginari buruzko teoria ezagun bat.

Teoria honek dioenez, euskal gazteriaren dogmatismoaren errudun, psikologiaren arabera dogmatiko izatera beharturik zeudèn gazte batzuk dira. Eta gazte hauk dogmatiko izatera beharturik zeuden, fede batek sortutako hutsunea beste fede batekin bete zutelako. Gazte hauk apezgai izanak ziren. Beren apezgaitegiko hezkuntza dogmatikoa, sinesmenezkoa eta apostolutzara eta misiolaritza zuzendua, haren inplikazioa psikologikoekin, zuzenean politikara aldatu nahi izan zuten. Hortik dator, marxismoaren —eta marxismo dogmatiko eta mesianista baten— modan egotea.

Tesi hau, ordea, herrena iruditzen zait niri; edo, hobeki esateko, hanka bakarrekoa. Egiatzkoa izateko, beste hanka falta du. Alderdi askotatik osatu beharra dago.

Apezgaiak ez dira zerutik zuzenean seminariora joaten, familietatik eta herrietatik etorrita haizik. Apezgaitegiak ez dira beterik egoten, herria erlijiosoa ez denean («erlijioso» modu oso konkretu, ageriko eta bizi batetan). Sinesmen krisiak eta sinesmen aldaketak ez dira apezgaitegietan besterik gabe sortzen. Horretarako, determi-



# EUSKALDUNAK ETA ERLIJIOA

nanteak ez baldin badira ere, baldintza soziologiko batzuk beharrezkoak dira.

Horrelako sinesmen krisiek aukera<sup>o</sup> bat behar dute, egiazko bihurtzeko. Aukera hori, baldintza soziologiko hori, Euskal Herrian, kristau sinesmen ohizkoaren<sup>o</sup> atzerakuntzak sortutako hutsunea zen. Horrek posibilitatu zuen apezgaien sinesmen krisia eta aldaketa. Euskal marxismoaren dogmatismoa apezgai batzuen dogmatismo aldatetan oinharritzea, aldapeko sagarraren adarraren puntaren puntan txistuka ihardutea dela uste dut. Sinesmen aldaketa herrian gertatu da. Kristau sinesmen ohizkoaren galtzeak herrian sortu du betebeharreko hutsunea. Kristau sinesmen ohizkoaren dogmatismoa ez zen apezgaitegietan bizi, herrian baizik, herriko kaleetan, familia bakoitzean.

Horrelako prozesu zabal batek ez du gizartearen maila guztietan desarroilo<sup>o</sup> berdina izaten. Prozesu guztiek bezala, honek ere bere kristalizazio puntuak izan ditu, eta horietako bat apezgaitegietako sinesmen krisia izan zitekeen. Baina ez gehiago. Besterik pentsatzea, historia minoriek egiten dutela aitortzea litzateke. Gizarte baten barruan eta historian minoriek eraginik ba dutela, ukatzerik ez dago. Baina minoriak gizarte baten barruan sortzen dira, tradizio baten ixurrian<sup>o</sup> sartzen dira; eta lehenak, orainak eta gizarteak jarritako mugen barruan dute beren jokalekua.

Bestetik, erlijioaren akabera aldarrikatzea, ezinbestekotzat jotzea eta irrikatzea<sup>o</sup> joko arriskugarria gerta daiteke. Hori Euskal Herrian gertatu ote den edo gertatzen ari den galdetzea, utzi dezagun gaurkoz alde batera. Beste alderdi batzuei hel<sup>o</sup> diezaiegun.

Gaurko zenbait euskal gazteren dogmatismoa, ohizko kristau sinesmenaren galerak<sup>o</sup> sortutako hutsunean kokatzen<sup>o</sup> baldin bada, Elizak bere buruari galde egin behar lioke, gertaera horretan bera zenbateraino errudun den; kristau sinesmena behar zèn garaian behar zèn bezala eta behar zèn neurrian berritu eta gaurkotu ez zuelako.

Eliza horretan errudun baldin bada —eta nik hala uste—, bere errua aitortu eta pagatzen saiatu beharko luke. Iruditzen zaidanez, ordea, hori egiteko asmorik duen aztarnarik<sup>o</sup> ez dago. Ohizko sinesmenaren galtzea sekularizazio bezala ulertzen du: kristau bolore zenbait, Jainkoarekiko lotura galdurik, gizarte autonomo baten balore bilakatu<sup>o</sup> dira, eta Elizak ez daduka balore horiekin zuzenean zerikusirik. Lehen, sinesmena ez berritzeagatik galdu zituèn baloreak, bereziki kristauak ez direla aitortzen du orain; eta, horrela, bigarren aldiz bere eginkizunari ihes egiten dio. Egiazko egoeratik ihes egiten du, arazoari kanpotik erantzun bat ematen saiatuz. Alferrikako eginahala, ordea: lokarriak hautsiz gero, Eliza gizartearen bilakaeratik kanpora gelditu delako.

Erljioa akabatzen ari delako teoriaren arriskua, ordea, ez da Elizarentzat bakarrik arrisku bat, guztiontzat baizik. Erljioak gure burua, bihotza eta barrenak —agian,<sup>o</sup> nahi baino gehiago; guttienean behintzat, uste baino gehiago— eratu dizkigu. «Erljioa akabatu da» esanez, horrekin bakarrik ez da erlijioa hausten. Kanpoko lokarriekin hausteak ez du esan nahi, barrukoekin ere hautsi denik. Euskal Herrian gaur egun hatzeman<sup>o</sup> daitezkeen jokabide nagusienean, erlijio eraketa eta erlijio kutsua daramate<sup>o</sup> oraindik. Besterik uste izateak, erlijioa gudan oraindik bizirik dagoela besterik ez du adierazten. preso dagoela dakiena, ez da, preso egonik, aske<sup>o</sup> dela uste duena bezain preso.

JOSEBA ARREGI



Aurrera, irakurle!

Hemen gaituzu EUSKALDUNTZEN 3. honekin, zerbait egiteko asmoz, euskaldunok geure hizkuntza nola ikas, zabal eta irakats jakin dezagun.

Lehen eta bigarren liburuei egin zaien kritika gogoan edukirik, hirugarren hau ateratzera ausartu gara.

Liburu hau, lehen eta bigarren EUSKALDUNTZEN ikasi dutenentzat edo oinharritzko alfabetatze bat egin nahi dutenentzat egina da.

Liburu honek hamalau bat ikasgai ditu, eta bertan azaltzen dira esaldi subordinatu gehienak. Arras ongi azaltzen dira esaldiok: ikasleak, gehienik, gauza ezagunak aurkituko ditu; baina poliki poliki joko du zailago diren gauzetara. Honetaz gainera, irudiak, eskemak eta abar agertzen dira. Bigarren mailan bezala. Hiztegiaren klasifikatze bat ere egin dugu. Hitzak hizkuntzaren egiturak erabiltzeko behar ditugu, eta bere daramate egituren bizia. Hitz batzuk besteak baino garrantzitsuagoak direlarik, kontuan ukan dugu haien **noiztasun** eta **malztasuna**.

Ba ditu liburuak istorioak eta elkar hizketak ere. Hizkuntzak eguneroko tresna bat izan behar duenez gero, haren zerbitzua agerian jartzeko ipini ditugu istorio eta elkar hizketok.

Pertsonaiak, istorioak eta hiztegia, arrunt arruntak izan daitezten saiatu gara.

Ikas ezazu zeure hizkuntza. Hor duzu prest EUSKALDUNTZEN Hirugarrena.

Zuzenbide honetara eska dezakezu: «EUSKALDUNTZEN», Pelota 4-1.º, Bilbao-5.

**ANAITASUNA Bizkaia**  
**Hamabosterokoa.**

**Zuzendari ordeko:** Imanol Berriatua.

**Bulegoa:** Pelota, 4-1.º - Bilbao-5.

**Imprimatzaile:** AMADO, Mazarredo, 35 - Bilbao-10.

**Moldatzaile:** RALI, Particular de Costa, 12-14, 3.º - Bilbao-10.

**XXI. urtea.**

**D.L.:** BI-1.753 - 1967.



# Unibertsitate "jator" bat

Aix-Marseille III, Unibertsitate berria da, aurten jaioa. Ikastaro honetan behar zuen hasi. Eta horra, eskolak ez baina istiluak hasi dira. Ezkerreko alderdi eta mugimenduak haserreturik dabilta. Irakasleak ere ez datoz bat; kontrako zenbaitek eskola lekuak okupatu dituzte, haserrea agertzeko. Estudiantiak manifestazioka dabilta Marseillako kaleetan; Parisen ere hasiak dira. Eta Debbasch jaunari, Unibertsitate berriaren kreatoraile eta bertako nagusiari, autoa erre egin diote berrikitan.\*

Zer da gertatzen dena?

Ez dea\* bidezko, 40.000 unibertsitari dituen eskualde\* baretan hiru Unibertsitate ukan\* ditzan, Frantziako beste hiru nagusiek dituzten bezalaxe, bestalde?

Eta, gainera, 68.eko Maiatzak berak ez ote zuen, demokraziaren izenean, Unibertsitateen ugaltzea eta eskualdekatzea\* eskatzen?

Zer da, orduan, gertatzen dena?

Unibertsitate berri hau sortzeko asmoa aspaldikoa eta ezaguna zen. Nola eta zertarako egin, hori zen eztabaidagai, mahai gainean zegoena. Ministerioak berak ere ez omen zion halako presarik ikusten. Baina hona, denbora gutitan lan asko eginga. Jendea bakaziotan\* dagoelarik, Unibertsitatea sortua dela jakin da. Udako lana, lan beroa.

Comiti jauna sartu da tartean. Comiti hau Marseillako deputatua da, eta U.D.R.koa (Gobernuko talde nagusiko, alegia\*). Eta honek ez ditu bere eritziak kolkoan gorde. Esan duenez, «...jendeak ikusiko du zer hobets\*: ala zalapartaka dabilen Unibertsitate bat, ala lan egiten duen Unibertsitate bat. Maoismoa baino fisika maiteago dutenak, Saint-Jérôme-ra joango dira (Unibertsitate berrikoa da hau). Besteekin, lan egin nahi ez eta politika gurago\* dutenekin, horiekin ez dago zer eginik. Behar dena hau da, alegia, hirugarren Unibertsitatea ongi bizi dadila, egin dezala lan eta Unibertsitatea nahasteko eginahal guztiak galeraz ditzala... Honetara, bai, honetara iritxi\* behar du».

Bistan dago asmoa. Eta ongi eramana izan da. Alde bate-tik, Unibertsitate bare eta ongi doan bat egin da, estudiantegutirekin eta laguntza oparorekin\*; eta bestetik, ezkerreko utzitako Unibertsitate bat, hain zuzen ikasle askorekin eta laguntza gutirekin. Ondo baino hobeto dakite, horrela borroka eta haserrea non sortuko den atzera.\* Eta konparaketa eginen dute orduan.

Lehenengo Unibertsitateari gauza asko salatzen zaio: gestio arazoa gaizki eramatea, erantzunkizunik eza, aginte nahasmen-duak, eta abar. Eta ba dirudi, egiazki ez dela hor falta.

Baina Unibertsitate horren zuzendaritzari barkatzen ez zaio-na ez da batik\* bat hori, baizik eta haien politika joera. Zuzendaritza hori ezkerrekoa da, Alderdi Komunistaren inguru-koak gehienak 1968.az geroztik hori.

Debbasch jaunak berak ez bide\* du maila horretan borroka jarri nahi. Dioenez, «ba dira, komunistek eduki eta ongi doazen Unibertsitateak». Salatzen duena, «anarkia» eta «gainbehera» delako hori da. Eta honela dio: «Unibertsitatea horren politizaturik eta zataturik dagoen eskualde bakarra, Aix-Marseille da».

Debbasch-en asmoa hirutan adarkatzen da: ordenua ezartzea, despolitizatzea, eta Unibertsitate moderno eta egoki bat egitea. Eredu\* bat, Unibertsitate eredu-garri bat.

Aix-Marseille III sortzea politikazko erabaki bat izan da. Eta nolakoa! Alderdi Sozialistak legearen kontrakotzat jo du.

Maurice Duverger ezagunak «kulturazko politika kontserbakor baten seinalea» ikusi du hor.

Dena dela, Duverger berak dioenez, «bien-pensants» guz-tien poza da Marseillako Unibertsitate berri hori.

JOAN TORREALDAI

diote, deutsoe  
ditzala, daizala  
ditzan, daizan  
zaio, jako  
zion, eutson



Emakume, gizonezko eta umeen jantziak

Oihal, izare eta etxean behar diren  
gainerakoak

Bai emakume eta bai gizonezkoentzako  
jantzi aukeratuenak, azken  
modara eginak

**HURI ZAHARRA**

"Casco Viejo"

**BILBO**



# JAKIN

Zuzenbidea: JAKIN, Arantzazu. Oinati. Gipuzkoa.

Oharra: Adieraz gurutze batekin ondoko haueetatik nahi dituzun liburuak.

JAKIN sorta	pta.
<input type="checkbox"/> 1. Ipar Euskal Herria (agortua)	
<input type="checkbox"/> 2. Salvatore Mitxelena (agortua)	
<input type="checkbox"/> 3. Rikardo Arregi ... ..	100
<input type="checkbox"/> 4. Kultura eta Fedea ... ..	100
<input type="checkbox"/> 5. Erlijioa hauzipean ... ..	100
<input type="checkbox"/> 6. Gure Ikastola ... ..	150
<input type="checkbox"/> 7. Koperatibak ... ..	110
<input type="checkbox"/> 8. Euskal Herriaren atarian (irteteko) ...	130

JAKIN liburu sorta	pta.
<input type="checkbox"/> 1. Euskal Herriaren Historia ... ..	130
F. Zabala	
<input type="checkbox"/> 2. Mintzaira, aurpegia: Gizon! ... ..	120
J. Hiriarte-Urruty	
<input type="checkbox"/> 3. Iraultzaren hildotik ... ..	100
J. Intxausti	
<input type="checkbox"/> 4. Zezenak Errepublikan ... ..	100
J. Hiriarte-Urruty	
<input type="checkbox"/> 5. Kolakowski ... ..	130
J. Arregui, J. Azurmendi	
<input type="checkbox"/> 6. Herriraren lekuko ... ..	150
R. Arregi	
<input type="checkbox"/> 7. Axular. Mendea, gizona, liburua ... ..	120
L. Villasante	
<input type="checkbox"/> 8. Fedearen dinamika ... ..	120
P. Tillich	
<input type="checkbox"/> 9. Kultura proletarioaz ... ..	130
J. Azurmendi	
<input type="checkbox"/> 10. Euskaldunen ipuin harrigarriak ... ..	130
M. Etxeberria	
<input type="checkbox"/> 11. Ekaitza ... ..	120
J. M. Satrustegi	
<input type="checkbox"/> 12. Iraultzaz ... ..	130
J. M. Torrealdai	

Ikus, ikas, ekin JAKIN liburuekin!

Suskritoreentzat % 30, %40 eta % 50 merkeago!  
Izena .....  
Kalea ..... Tel. ....  
Herria ..... Probintzia .....

- 1.000 pta. aurreratuz ordainduko dut.  
 Liburu bakoitza ordainduko dut, datozen neurrian.

# NIHILON

Ideologietan utopiek, eta elaberrietan\* «antiutopiek» edo utopia negatiboek, ez gaituzte baketan uzten.

Makina bat kritika egin zaio, Wells eta Shaw-ez geroztik, lehia\* guztiarekin bere hondamendia obratzen ari omen den mundu honi. Hor daude Orwell-en «1984» eta Huxley-ren «Mundu Zoragarria». Alan Sillitoe ere, «langile literaturako» ia\* klasiko bat, bide beretik sartu zaigu. Orain arte langileekin enplegatzen zen, eta beharbada dibertituagoa iruditzen zaio Nihilon-en analisi bat asmatzea, «Travels in Nihilon» elaberrian.

Sillitoe bost berriketari\* bidaltzen ditu Nihilon ikertzerara, Nihilon bost ikuskera desberdinetatik azaltzeko.

Nihilon, «errepublika herritar kapitalista» bat da. Nihilonek sistema orijinal bat du: «faxista gorriek» agintzen dute, «diktadura nihilist-kapitalist-sozialist-demokratiko» batekin.

Nihilonen dena gertatzen da aldrebes:

Etxeek zurezko zimentuak dituzte, eta zementuzko ormak.\*

Lujozko trenak, herri trenak baino astiroago dabilta.

Hegazkina lurreratzekoan, azafatak (larru bixian «jantzita») zigarroa erretzen hasteko agintzen du, eta segurtasun uhala askatzeko.

Txoferrek kafea debekaturik dadukate, baina «nihilitz» (bertako agoardientea) edateko gomendatzen zaie.

Nihilonen auto istripuen\* alde propaganda egiten da.

Gazteren bat neurotikoa bada, haren gurasoek joan behar dute tratamendu psikiatrikoa hartzera.

Bi tresna astronautiko barik,\* espazioan bi andre-gizon kopulatzen dira. Dena telebisatuta.

Seksoen berdintasun osoa dago. Estazioan zure maletak garraiatu dizkizun neska mardulak, hotelera ailegatu orduko, heldu\* eta hertsatu egingo zaitu.

Nihilon oraindik Damaskon zenean, arrazionalistak zeuden gobernuan. Gero nihilistak nagusitu ziren, eta herriaren izena aldatu zuten. Baina Kronakiatik kazetari\* bat ailegatu delarik—bizikletan ailegatzen da Sillitoe bidalitako berriketaria—, ustegabeen etxe gudua sortzen da, eta berriro arrazionalistek irabazten dute. Arrazionalisten lehenengo\* gobernu txarra bazen, nihilistena okerragoa, eta arrazionalisten bigarrena okerraren okerrera.

Dena batera: zozokeria galanta eta antiutopia eskasa, balio kritikorik batere gabekoa.

P. MENDIONDO

daude. **dagoz**  
dizkizu. **deutsuz**  
zaie. **jake**  
zaigu. **jaku**  
zaio. **jako**  
zeuden. **egozen**



# Neure lantokitik

## BATASUNA APURTZEN

Entrepresa batetako zuzendaria etorri zaigu gaur geure bulegora,\* han dadukagun IBM ordinatorea ikustera. Ordu bete eman du gure artean, eta, oso berritsua zenez, zernahi gaitaz berba egin digu.

Berria da entrepresa horretan, eta, sartu eta laster, jende garbiketa bat egin du. Entrepresan urte asko zeramatenek,\* pribilejioak zituzten (adibidez, egunean zazpi ordutako lana egiten zuten). Zuzendari berriak gehitu nahi zizkien orduok zortzi arte; baina, nahiz eta soldata handiagoa eskain, ez zuen lortu bere proposamendua onhartua izatea. Orduan, edozein atxakiaz, enplegatu batzuk kanpora bota zituen, berriak hartuz. Enplegatu berrioi zortzi ordutako lana ezarri zien, eta zaharrei baino soldata handiagoa eman. Zinikoki esan zigun, bere helburua lortzeko erabili duen bidea, hau izan dela: jar enplegatuak bata bestearen kontra, berriak zaharren aurka. Eta orain zaharrak zatikatzen dihardu, morroinen agertzen direnak sariztatuz.

Kontatu dudana egia da, ez da nik asmatua. Berri hau ANAITASUNAra ekarri badut, ez da izan, berriak berak duen garrantziagatik, batasunaren beharra azaltzeagatik baino.

Gu euskaldunok, elkarren kontra gabiltzan artean, ahulak\* izanen gara, geure indarrak alferrik galtzen ditugulako. Denbora asko ez dela, esate baterako, euskal aldizkari batetatik gupidagabeki\* atakatzen zituzten, gaur egun euskal linguistikari eta literaturan gorengo mailan ditugun gizonak, hala nola Mitxelena, Larresoro eta Joxe Azurmendi. Jokabide horrek min haundia eman zidan.

## ITSUAK

Txikitan, Begoñan bizi ginelarik, familia bat tratatzen genuen. Etxeko alaba bat, ni baino zertxobait zaharragoa, itsua zen. Akordeoia oso ongi jotzen zuen; eta asko gustatzen zitzaigun harenera joatea, hain musika ederra entzuteratzen.

Hainbat urte dira, haren berri jakin ez dudala. Baina hara non ikusten dudan herenegun, Sindikatoetako ate inguruan, kalean, zero gradutako hotzarekin, itsuen loteria saltzen. Bihotza erdibitu egin zitzaidan.

Barka, Ana Mari! Baina ez nuen zugana joateko adorerik ukan.

Zer merezi du, bere itsuak horrela zigortzen dituen gizarteak?

Eta Larraunek «Hil ala Bizi» liburuan dioenez oroitzen naiz: «Bizitzen adina\* hiltzen laguntzen zik\* lanak».

## EUSKALTZAINDIA ETA GU

Aurten ere, Durangon, Euskal Liburu eta Diskoen Azoka egin zen; eta, beti bezala, milaka ikusle eta erosle bildu ziren Andre Mari elizaren aterpean.

Editorial etxeetako ordezkariak garenok, batzarre bat eduki genuen «Gerediaga» elkartekoekin. Liburuaren sariaketa egiterakoan, ordezkari batek, Euskaltzaindia aipatu zenean, «instituzio diskutitu bat» zela esan zuen. Eta hitz haiek min eman zidaten. Nortzuek eta zergatik diskutitzen dute Euskaltzaindia? Hizkuntzaren batasunagatik?

Esku artean dut «Euskera» aldizkariaren separata bat, aditz laguntzaile batuarekin. Hona zer dioen Mitxelena, liburuxkaren hitzaurrean:

«Batasuna ez da erdietsiko,\* idazleek lehenbizi, hiztunek gero, forma berdina eta berberak onhartu eta erabiliko dituztenean baizik. Euskaltzaindiak batasun bide bat eskaintzen die euskaldunei. Euskaldunok dugu orain hitza».

Euskaltzaindia, «instituzio diskutitua»! Euskaldunon artean bihotzik eta kemenik badago, jaiki eta elkarretara gaitezen geure gorengo erakunde\* horren inguruan, euskararen batasuna aurrera eramateko.

## LEXONAKO KANTARI TALDEA

Hazilean,\* Bilbon, Lexonako kantari taldeak euskal kanta saio bat eskaini zigun.

Jende asko, txaloak ugari: musikarieren eritziz, Bilbon entzun den hoberenatarikoa izan da.

Kantari talde honek bere medioekin lortu du goi maila hau. Honelako elkarte kulturalak noraino helduko lirarteke, goikoek gehiago lagunduko balituzte?

## EUSKAL DISKO BERRIAK

«Gaskuña» etxeak zabaldurik, Xeberri gazteak disko handi bat grabatu du, hamar kantarekin. Hauen artean, Iparragirreraren zortziko ezagunenak: «Agur Euskal Herriari» eta «Gernikako Arbola».

«Columbia» etxeak beste disko handi bat argitaratu du, Alonsotegiko ume kantarien abestiekin. Diskoak hamabi kantu ditu, eta hauen artean «Agur, Donibane», «Geuria da» eta «Pello Joxepe».

«GBS» etxeak Lexonako kantari taldeari disko handi bat egin dio, hamabi abestirekin: «Euskal Herri polita, gora», «Anton Aizkorri», «Goiko Mendian», «Maitia, nun zira», eta abar.

Azkenik, «Columbia» berak disko txiki bat egin dio «Elaiak» hirukoteari, «Kantore» eta «Maitasuna» kantuekin.

## GABON JAIALDIA BILBON

Baimen guztiak lorturik daude, Bilboko «Santiago Apóstol» teatroan emango den Gabon jaialdirako.

Umeentzat izango da bereziki eskainia, eta lehenengoz presentatuko dira Bilbon euskaldun pailasoak:\* Donostiako Kixki, Mixki eta Kaxkamelon.

Jaialdi hau abenduaren 23an izango da, igandez, goizeko hamaika eta erdietan.

Sarrera txartelak nahi izatekotan, Lexonako ikastolan eskura daitezke, Deustuko Nobel liburutegian, eta Bilboko Herriak, Izarra, Xabier, Galería del Libro eta Verdes-enean.

XABIER GEREÑO

daude, **dagoz**  
die, **deutse**  
digu, **deusku**  
dio, **deutso**  
zaigu, **jaku**  
zidan, **eustan**

zidaten, **eusten**  
zien, **eutsen**  
zigun, **euskun**  
zitzaidan, **jatan**  
zitzaigun, **jakun**  
zizkien, **eutsezan**



# Gure Munduko Albisteak

## Liburu berriak

### «Goiko kale», Anjel Lertxundik, GEROn

Elaberri\* bikaina, —tamalez,\* bikain bezain labur esanen genuke—, Anjel Lertxundi maisu gazteak eskaini diguna. Proust-en «Denbora galduaren bilaketa»ren gisa,\* egileak bere haurtzaroaren oroitpenak birpizten ditu (dizkigu), haietako bakoitza birbizituz; egiazkoak diren gertaeren antzera, gainera, gudan halako lilura\* dardarazko bat uzten dute.

Tankera\* aldetik, zertarako uka, alde makala dago **Ajea du Urturik** hartatik hona. Bide handia egin du, halafede, hain denbora laburrean. Hau, irakurleak ikusiko duenez, elaberri askoz landuago bat da.

Literatur sortze lanak eskas omen diren une honetan, ezin hobeki datorkigu, beraz, Anjelen lana. Ea noiz hurrengoa.

Bibliographiarako: LERTXUNDI, Anjel: **Goiko kale**, Ed. Mensajero, Bilbo, 1973.

### «Los Pueblos del Norte», Julio Caro Barojak, TXERTOAN

Orain dela gutti, TXERTOAN Donostiar editorialak J. Caro Baroja jaunaren **Los Pueblos del Norte** izeneko liburua bidali zigun, horrialdeotan aipamen bat egin geniezaion.

Oso esateko gutti dukegu, noski, Julio Caro Baroja bezalako azterlari baten lanari buruz, kasu honetan laudorioak, bidezkoak izan arren, ezagunak bezain alferrekoak lirakeelako.

Obra hau lehenbizikoz 1943.ean eman zen argitara, bai eta handik lasterrera agortu ere. Oraingo hau, beraz, bigarren edizio **zuzendu eta gehitu** horietako bat dugu, egileak harez gero bilduriko datuekin osatua. Liburuaren gaia, izenak berak dioenez, Penintsularen iparraldeko herrien ethnologi azterketa bat da, erromatarren garaietatik hona, beti testu idatzietan oinarriturik, moldatua. Irakurleak pentsa dezakeenez, obra hau ez doakio soilki Euskal Herriari, kantauriar herri guztiei baizik; baina, horregatik ere, zinez\* esan daiteke, zatirik mamitsuena gure Herriari dagokiona dela, eta beste tokietako ohiturekiko konparaketá ezin interesgarriagoa zaigula.

Obra benetan gomendagarri bat, beraz.

Bibliographiarako: CARO BAROJA, Julio: **Los Pueblos del Norte de la Península Ibérica**, Ed. Txertoa, S. Sebastián, 1973.

### «Pedagogia Gaur», Joshe Erzibengoak, GEROn

Egunokin jaso dugu GERO editorialaren azken liburu hau. Pozik dakusagu\* nola konkurrentziak eta eritzi aniztasunak\* gero eta fruitu ugariagoak dakarzkiguten. Izan ere, ez da besterik, Joshe (noizko Joxe?) Erzibengoaren pedagogi liburu berri honek darakuskiguna.

Oso Itsuak ez bagara, ba dirudi, obra hau —azken azalaren eskribua lekuko\*— orain arte gure artean ibili diren beste irakasle eta ideologia batzuen aurka (edo kontra) datorrela. Izan ere, nik neuk ez nuke kasualitatezkoztat joko, ez eta guttiagorik ere, liburuak dakarren bibliographian Eusebio Osaren **Pedagogia eta gizartea** edo eta **Irakasleen Liburutegiko** obrarik bat ere ez aipatzea, erdarazko liburu ugari azaltzen diren artean. Euskal bibliographia, honetan ere, aberastuz baldin badoa, ez dadila, otoi!, alferrik gerta; eta jakin dezagun, guttienez, besteen eritzi eta lanez baliatzen.

Liburu honek, dena dela, Platonen gogoko munduan gabe,\* eguneroko arazo konkretuetan finkatzen ditu bere erroak, eta zin zinez euskal haurren irakaskintza ari da aztertzen, horretarako programaketa bat ahalik eta zehatzenik eskainiz, egilearen esperientzian oinarritua bera.


Gure ikastola eta kolegioetako irakasle guztientzat, bai halaber\* guraso arduratsu direnentzat, lan oso interesgarria gerta daitekeela koan nago, beraz.

Bibliographiarako: ERZIBENGOA, Joshe: **Pedagogia gaur**, Ed. Mensajero, Bilbao, 1973.

## «Iparragirre»: Patxi Andionen disko berria

«Philips» diskoetxeak **Long Play** dotore bat bidali digu ANAITA-SUNARA Patxi Andionen azken kantekin. Disko hau Iparragirrearen kanta ezagunekin osatua da, doinu eta interpretazio aldetik Patxi Andionek bere erara moldatuz.

Patxi Andion, euskalduna jatorriz baina bizilekuz madrildarra, egia aitortuz, ez da oraintsu arte oso begi onez ikusia izan gure artean, Patxi tx-dun pitxi hori gorabehera,\* bere kanta guztiak erdaraz egiten zituelako. Ez, ez genuen begiko.\* Beharbada, aurreritzi\* txar hau ken dakigun edo, disko berri honekin datorkigu orain; eta honekin bertoko jendearen egiazko gogoia eta gustua zein den ondo baino hobeto ikasi duela darakuskigu guztioi. Artista baten helburua jendea erakartzea baldin bada, ezin uka diezaiokegu, honetan behintzat zuhurki jokatu duenik.



Saio bezala, ezin interesgarriago deritzogu P. Andionen lan honi. Gauza guztietan bezalaxe, gerta daiteke, batzuek diskoaren zenbait kantari gaizki eriztea, edo eta jatorrizko modua hobetzat ematea. Ez gara gu horretan sartzen, buru bezainbat aburu\* delakoagatik; baina ezin uka daitekeena zera da, Patxi Andionek eginahal bortitiz bat egin duela, kanta klasiko horik\* gaurko tankeran\* emateko. Lizardiren «...soina zahar, berri gogoa» hura\* ere nabari\* ikusi dugu hemen, nolabait. Pare bat aipatzekotan, guztietan zeresanik franko egon arren, **Gernikako arbolarena** eta **Nere amak baleki** nabarieraziko\* genituzke, gure eritiz zinez\* ongi emanak baitaude.

Zorionak ematen dizkiogu, dudatzeke,\* kantari latz eta garratz honi; eskaini digun ahaleginak, guttienez, horrenbeste merezi du.

## Aditz batua agortu da

Euskaltzaindiak, bere aldizkariaren gehigarri gisa,\* atera duen aditz batuaren lehen edizioa agortu egin da, eta bigarrena sartu da egunokin moldiztegiara. Arrakasta\* ona, dudarik gabe: jendeak egin dion harrera ona lekuko.\*

Ea Gabonetan Euskaltzaindiak hurrengo\* pausoa egiten digun, aditz synthetikoa batuz. Hala biz.\*

## Zamorako apezak berriz ere gose greban

Dakigunez, Zamorako apez euskaldunak, gobernuaren kontrako eta E.T.A.aren aldeko eritziak ematearren gartzeleratuak, Carabanchel-era eramana izan ziren osasun kontuagatik, egiten ari ziren gose grebaren ondoren zeharo ahul gelditu ziren eta. Orain dela aste bat, ordea, berriz ere Zamorara ekarri zituzten, eta, bertara heldu bezain laster, gose greban hasi dira berriro. Apez euskaldun horien protesta hori Espainia-Vatikano arteko konkordatuaren arauerako\* presondegiagatik da, preso politiko komunaren artean egon nahi dute eta.

Azken orduan jakin dugunez, Bilboko apezpikuteagiko bulegoetan,\* Zamorako apez grebalariekin alde, bilduta zeuden apez mordo bat, polizia bertara sartuta, komisaritzara eramana izan dira.



## Bilboko Herri Irratia dela eta

Bide ongi informatu batetik jakin dugunez, Bilboko Herri Irratiak egunero ordu beteko irratsaio bat eskainiko omen digu, euskaldunok pozik egon gakizkion. Antza denez, honekin apezpikuaren erabakiak betetzera prestatu dira. Ba zen ordua.

Irratiko programak, ordea, herrietako berriemaileen bidez eratu omen dira, erdarazko batzuk bezalaxe, baina diferentzia pitxi birekin: a) euskal berriemaileak herriko parrokuaren ardurapean egonen dira, beronek nahi duenean parrokiari buruzko eliz kontuak (euskaraz zein erdaraz) eman eraziz, eta b) euskal berriemaileok beren lana dohainik<sup>o</sup> eta txakur<sup>o</sup> ttikirik kobratu gabe egin beharko diote irratitari, beronek **haientzat** dirurik ez omen du eta.

Hau iraintzat<sup>o</sup> hartu behar ez bada, ni neuk, neure itsutasunean, ez dakit, egia esan, nola har. Alde batetik erdal berriemeileei ezartzen ez zaien parrokupeko morrontza paternalista bat jasan<sup>o</sup> beharko dute euskal berrilariak, eta, hau gutti delarik, **gratis et amore** lan eginez, herri Irratiak bere diru eskasia (?) euskaldunen lepotik konpondu nahi baitu, dirudienez. Apezpikuaren ardurapeko irratia bat denez gero, ez dugu ulertzen, bestalde, euskararako dirurik ez egotea, orain arte, orain eta hemendik aurrera erdararako diru franko egon dela, ba dagoela eta egonen dela begi bistan dagoenean.

Elizaren misioetarako, urtero hainbeste diru ematen duen Herri batek, antza, ez du Elizarengandik bere hizkuntzaren aldeko dirurik itzaroteko<sup>o</sup> eskubiderik. Gauzak honela, paper errea da, ez besterik, apezpikuaren helburu euskaltzaleak. Euskaldunok ez gara ume batzuk, ez eta enganioz eta azpibidez trata gaitzkeen kokolo batzuk; geure eskubideez ari gara, eta ez mesedeez. Zor zaiguna eskatzen dugu, ez besterik; eta gehiegikeria bat ote da, gurean euskarari Elizak erdarari besteko<sup>o</sup> tratu bat (guttienez!!) ematea? Horren ardura dutenek, pentsa bezate.

## Deustuan: euskal tesina gehiegi omen

Deustuko Unibertsitateko estudianteen artean dantzugunez,<sup>o</sup> ba dirudi, irakasleen bilera batetan haietako batek, ihazko ikastaroan «euskal gaien buruzko tesina gehiegi» egon zela aipatu zuela kexaz.<sup>o</sup> Argiro dago: irakasle horrentzat ez da egoki, ez zuzen, ez osasungarri, Euskal Herriko unibertsitariak euskal gaien buruzko estudioak egitea.

## Bilboko Unibertsitateko I. Kultur Astea

Aurten, hazilaren<sup>o</sup> 26tik 30era, Bilboko Unibertsitateko Medikuntzako Fakultatean, Euskal Kultur Aste bat eratu da lehenbizikoz. Hau dela eta, bertako unibertsitariak programa bana atera dute euskaraz eta erdaraz, hitzaldiak agerteraziz. Hona hemen:

Hazilaren 26an, «Medikuntzaren gorabeherak Bizkaian XIX. mendean» (erdaraz), **Dr. M. Vitoria**, Anatomiako departamentuko irakaslea.

Hazilaren 27an, «Bizkaiko kardiakoaren aldeko elkartearen laguntza, kardiologiaren desarroilatzean» (erdaraz), **Dr. M. Iriarte**, Kardiologiako departamentuko nagusia.

Hazilaren 28an, «Euskara tekhnikoa» (euskaraz), **J. R. Etxebarria**, Physika irakaslea Zientzietako fakultatean.

Hazilaren 29an, «Euskal Herriko ahaidetasuna eta gizartea» (erdaraz), **Dr. J. Arpal**, sozio'ogoa. «Euskal familiaren kultur balioen eboluzioak sortutako psikiatri problemak» (erdaraz), **Dr. J. Guimon**, Psikiatria eta Psikologiako departamentuko nagusia.

Hazilaren 30ean, «Bilinguismoa» (erdaraz), **Dra. K. Atutxa**, Psikologia eta Psikiatriako departamentuko irakaslea.

Hala ere, honelakoetan gertatzen denez, azken orduan aldaketa batzuk<sup>o</sup> egon dira hitzaldi hauetan, eta gauzak ez dira programan bezalaxe gertatu. Dena dela, ibiltzen ibiliz ikasten da, eta ez bestela; eta bere lehenbiziko saio hau, lehena izanik, barkagarri zaioke<sup>o</sup> Unibertsitateko Euskal Kultur Taldeari, dudarik gabe. Askotxo egin dute medikugaiek, bestalde, egin dutenaz; dantzuguna<sup>o</sup> egia bada, erretoregoaren aldetik erraztasunik gutti ukan<sup>o</sup> baitute horretarako. Segur gaude, ordea, datorren urtean are<sup>o</sup> gehiago eta hobe-ki eginen dutela.

## Abenduaren 23an: Olentzaro haurren artean

Bai, holaxe da. Azken orduan albiste hau etorri zaigu: Olentzaro jauna, azken modara jantzita, abenduaren 23an «Santiago Apóstol» zinema aretoan,<sup>o</sup> Bilbon, eginen den jaialdira etorriko omen da pertsonalki, umeen artean gozoak banatzeko.

## Espainiako erregionalizazioa

Hazilaren<sup>o</sup> erdialdean, gobernuak bere erregio banaketa berria eman digu argitara, diotenez, asmo erabat<sup>o</sup> ekonomikoari begira moldatua.

Izanez, noski, horrela da, oraingo legeetan Diputazioen arteko elkartasunik egiterik ez baitago. Baina, Galizia eta Kataluniaren kasuan, bistan dago ez dela ekonomia, lurralde horik<sup>o</sup> eratzerakoan, kontuan hartu den arrazoi bakarra, bertako ekonomista eta erregionalisten eragin sendo eta jatorra baizik.



Euskal Herriari dagokionez, ordea, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Errioxarekin batera, Santander eta Burgos ere ezarri dira; eta, egia esan, ez dugu ulertzen —Ibarra jaunari kazetan<sup>o</sup> hori galdetu zion albistariak ulertzen ez zuen bezalaxe— zeintzu «arrazoi ekonomiko» izan diren, Burgos eta Santanderko probintzia osoak geureekin batzeko egon direnak. Agian<sup>o</sup> arrazoiok ez dirateke, ekonomiarekin zerikusirik handirik dutenak.

Gauza bat dago argiro, dena dela: Katalunian eta Galizian bertako ethnia eta kultura berezien ardura dadukaten ekonomistak dauden artean, Euskal Herriaren halakoak ez direla mantxuaren<sup>o</sup> hatzamarra<sup>o</sup> baino ugariago.

Honek ekarriko digun eragozpena, ordea, gaur gabe,<sup>o</sup> bihar etzi izanen da nabari,<sup>o</sup> Gobernuak Diputazioen arteko erakundeek<sup>o</sup> kultur arazoetarako bidea libre utziko diekeenean.<sup>o</sup> Nola batera eraman orduan, kontrast diren kultur interesak? Gaiizian eta Katalunian, ordea, gauzak errazago dirateke.

## Usoak beleari ipurdi beltz

Eta barka biezagu esaera zahar klasikoak, baina ez du beste izenik merezi ZERUKO ARGIAN (73-XI-24ean) Gurutz Ansolak egin dako artikulu bikainak. Tamames jaunak Espainiara datozen afrikarrangatik gertatzen (edo gertatzeko) omen diren kultur arazoak, guk Euskal Herriara modu desekilibratu batez datozkigun erdaldunengatik aipatuko bagenitu, noski —eta noski baino noskiago— **Mein Kempf**-en egilearen jarraitzailek porrokatuenak garella entzun beharko genuke, guttiagogatik maiz<sup>o</sup> gertatu denez.

**Le Monde**-n ere, antzeko artikulu alarmistak irakurri ditugu oraintsu, Frantziara doazen eta doazkeen langile kanpotarren frantsestu behar gorriaz. Eta gu, bitartean, isilik, lotsaz eta konplexupean. Ausera<sup>o</sup> benetan G. Ansolaren jarrera,<sup>o</sup> bai horixe!

### ARMENDARITZ

bezate, <b>beie</b>	diote, <b>deutsoe</b>
biezagu, <b>beisku</b>	dizkiogu, <b>deutsaguz</b>
daude, <b>dagoz</b>	gaude, <b>gagoz</b>
dezagun, <b>daigun</b>	geniezaion, <b>gengion</b>
dezake, <b>daike</b>	zaie, <b>jake</b>
diezaiokegu, <b>deiskiogu</b>	zaigu, <b>jaku</b>
digu, <b>deusku</b>	zigun, <b>euskun</b>
dio, <b>deutso</b>	zion, <b>eutson</b>



# Euskal kanta jaialdia Gasteizen

Hazilaren\* 10ean, Gasteizko Guridi teatroan eta Iradier elkar-  
teak antolaturik, euskal kanta saio bat entzun ahal izan genuen.  
Betiko kantariak etorri ziren, noski. (Monopolioren bat ote dute,  
ala onenak direa\*?)

Egia esan, frango ongi egon zen jaialdia, luzeegia izan bazen ere  
(hiru ordu luze iraun zuen). Guttitan egin ohi dira Gasteizen hone-  
lako jaialdiak; eta, ene ustez, gehiagotan egin behar genituzte, he-  
mengo euskal giroa zerbait zuzpertzeko.\*

Harez geroztik, zenbait adiskiderek hitz egin dut jaialdi hone-  
taz; eta pentsabide batzuk emango ditut hemen, euskal kantuen  
(haren zati baten) egoera zein den jakiteko interesgarri izan litez-  
keenak.

Lete eta Iriondo senar-emazteek eman zioten hasera\* jaialdi lu-  
ze honi. Ordu bete eta gehiago aritu ziren —noizean bakarka, nol-  
zean elkarrekin— eta hainbat kanta eta olerki bikain eskaini ziguten.  
Ezagun dute txori zaharrak direla euskal kanta alorrean.\* Urte  
asko daramate\* lan honetan, eta bizitzak zerbait desengainatu ditue-  
la esan behar. Itxuraz, euskal mezu\* bat eman nahi dute beren  
kantuen bidez; baina ozta ozta ikusten da mezu hori (ulergarria da  
nonbait *nahi* eta *ezin* hori). Honetarako, euskal kanta zaharrak era-  
biltzen dituzte, alegiazkoak\* hain zuzen: «Izotz ondoko iguzki», «Erro-  
ta zaharra»... («Tangoa» bera ere, alegiazkoa). Eta beste olerki sa-  
kon eta eder baina ilun samar batzuk: «Izarren hautsa», eta abar, la-  
naren esannahiaz.

Hau guztiau entzun ondoren, honelatsu pentsatu du jendeak: Du-  
darik gabe, Lete eta Iriondo euskal kantariak dira. Euskal kezka bat  
ager erazi nahi dute. Baina ilun mintzo dira, esan nahi dutena er-  
dizka adieraziz. Langileriaz ere mintzo dira, baino oso gutti (nonbait  
ez dago hainbeste hitz egin beharrik; hitz guttiago eta ekintza ge-  
hiago hobe).

Arte aldetik lorpen\* ederrik ba dute, benetan.

Kontraste bizia eskaini zигun Lupe neskatilaren saioak: kontras-  
te bitxia,\* ene ustez behintzat. Hamalau urte dituelarik, bizitzaren ga-  
rratzak ez bide\* du oraindik jo. Eta hau garbi ikus dezakegu haren  
kantuetan, hitzetan bereziki. Hitz usatuenak hauk\* dira: txoria, jus-  
tizia, lorea, inendia, ura, askatasuna, ikastola...

Euskal kezka ba ditu, baina kezka orokorregiak, jeneralegiak:  
kezka baino sentimendua gehiago. Hau guztiau normala da hamalau  
urtetan. Euskal arazoaren nahasmenduan ez bide\* da oraindik sartu.

Idea sinple hauei esker eta ahots\* miresgarriak lagundurik, Gas-  
teizko entzuleriarentzat atsegingarriena Lupe izan zela uste dut.

Bigarren ekinaldian, Gorka Knörr etorri zitzaigun, Arabaren erre-  
presentatzaile, kantari trebe, ahots sendo. Behin eta berriz esan zi-  
gun, bere kantuekin Arabako egoera islatu\* nahi zuela; eta islada  
bitxia\* eman zigula uste dut.

Arabaren euskal sustrai bila abiatu zen kantu zahar baten bidez.  
Ondoren, Zuberoa eta Lapurditik ibilaldi bat egin zuen, hango doinu

zaharrak kantatuz. Eta bere herrialdera itzuli zen azkenik, «Araba,  
oi Araba! Zu ote zara aitaren zaspigarren alaba?» kantu ikaragarriaz  
Arabaren euskal egoera iarria bortizki agertuz. Arabarrok euskaldunak  
ote?

Eta, azkenik, Benito Lertxundi agertu zen. Baina, ordurako, jendea  
aspertzen hasia zen, eta ez dakit haren gustura kantatu zuenentz.

Benitok arte miresgarria du, xarmanta:\* gustuz entzun dakiok.

Artean guztiz murgildurik dagoela dirudi, eta horretan trebe ager-  
tu zen. Eta euskal kezka? Euskal Herriaren egoerak melankoniaz  
bete duela esan behar: izugarrizko etsipena\* nabari\* zen haren  
kantuetan. Nahasmendu gehiegi ikusten duke\* Euskal Herrian, eta,  
Lizardirengana hurbilduz, deihadar bat oihukatzen du: «Ez ezazue  
itzal\* euskal sua». «ez da hil eta ez da hilko, guk ez badugu nahi»,  
«bila eta gorde itzazue asaben\* loreak». Arrisku gorrian ikusten  
ote du euskal kontzientzia? Hainbeste sasi ezkertiarrek bultzatu ote  
du horretara? Pentsagarria da arazoa.

Azkenik, gogor, zakar eta haserre, «Herriaren keinu hori» kan-  
tatu zuen. Behin eta berriz entzun ahal izan genuen, kitarra ikara-  
tu hartatik, «herriaren keinu hori». Nork jaso zuen Herriaren keinua?

Ahoko soinuaren notek dena estali zuten Gasteizko gauerdian,  
eta behe lainoak «herriaren keinua» jantzi.

## GASTEIZTAR

dakiok, daitekio  
dezakegu, daikegu  
ezazue, eizue  
itzazue, eizuez  
zigun, euskun  
ziguten, euskuen  
zioten, eutsoen  
zitzaigun, jakun



DANTZATOKI GOXOA Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra  
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

KAFETEGI **AMA & LUR** RESTAURANTA



HORRA, HORRA  
GURE OLENTZARO...







**СЪЖА**  
**LABORATL**  
**POPVLAR**



# Bat ala zazpi Eliza?

Gure herriak oraindik merezi izan ez duen albiste bat eman zaio Galiziari. Han eta hemen ezagutzen ditugu noski kristau fededunak. Herriaren talde on bat dira, eta ba daduzkate beren kultur beharrianak. Eta batek esango luke, Galiziako kristauak ez ote duten euskaldunek baino zorte hobea izango.

«Sept» editorialak deituta, Santiago de Compostelan bilkura\* bat egin da, Bibliaren itzulpena bultzatzeko. Galiziako biblilari, filologo eta idazleak bildu dira batzarre hartan. Haien asmoa, elkarrekin kristau herriarentzat lan egitea. Galiziako lau probintzietakoak omen dira, hor bildu direnak. Ikusten da, oraindik Euskal Herrian baino atzeratuago dabiltzala han. Lehenik Testamendu Berria itzuliko omen dute, gero Biblia osoa emateko asmotan.

Hemen ba ditugu hiruzpalau Testamendu Berri euskartuak. Eta, jakin dugunez, ba da hortik batzorde bat, Euskal Herri osorako Bibliaren itzulpen bakar eta irakurgarri bat egin nahi zuena. Izan ere, Olabiderenak ez baitu deus\* konpondu gure Bibli pobrezia. Eta Duvoisinin beste hori erosteko, pobreok ez baitugu sosik\*... Jainkoaren hitza benetan garesti saldu nahi digute Euskal Herrian... Eta, okerrena dena, segur gaude politto salduko dutela, gainera.

Eta bienbitartean lehengoan iraungo dugu, fedearen tresna hauk\* fededun xumeari\* erdi ukatuz. Nik ez dakit, elizgizonak gure aldizkari hau gehiegi maiteko duten. Beharbada bai, beharbada ez. Baina menturaz norbaitek lerrotxo hau irakurriko balitu, bizpahiru galdera egin gura nizkioke hementxe, jendaurrean.

Diotenez, Euskal Herria herri bakarra omen da. Halaxe airtortu\* ohi dute kristau abertzaleek Euskal Herrian. Ni ere baie-tzean nago. Noizpait entzuna dugunez, Erromak ere —hizkuntzaren aldetik behintzat; gainerakoaz zerbait esatekorik ba legoke, baina utz dezagun oraingoz— horixe berori nahi izan zuten: elizetako euskara, batua-edo (ahal zen neurrian horretaraxe joz, alegia\*) izan zedila. Horretarakoxe sortu ziren Euskal Herri osorako Batzordeak: liturgiarako, Bibliaren itzulpenarako.

Baina elizetako euskara batuaz ba dago zer esanik, noski. Azterketa bitxia egin liteke —eta lan handirik gabe egin ere— hizkuntza batu hartaz. Txundigarririk\* franko idoroko\* genuke, bai!, inoren lan gaitzaren balio jatorrak ukatu gabe. Baina lan guztiek dute beren muga, eta eliz batzorde haiena oso nabarmena izan da. Ez dute, inolaz ere, benetako batasun oinharririk eman: ez hiztegian, ez ortografian, ez deklinabidean, ez aditzean. Ezingo zuten nonbait, eta hori dena barkagarri dute. Ez noa ni, batasun gabezia hori salatzeraz.

Baina hemen argitara ekarri nahi nukeena, beste zerbait da: Zenbateraino hartu ote du haintzakotzat\* Elizak Euskal Herriaren nortasun osoa, bere bileretarako behar zituen lagun-garriok sortzean? Eta, larriagoa oraindik, Euskal Herriaren osotasuna (eta batasuna, beraz) barru barruan sentitzen dugunoi zer-nolako zerbitzuak eskaintzen dizkigu Elizak? Ba dakigu,

ez dela Elizaren zuzeneko eginkizuna euskararen batasuna lortzea (hori gidatzeko dago Euskaltzaindia); baina ba dakigu ere, Elizak ezin dezakeela uka eta behaztopa gure herriaren osotasun hurra.\*

Eta, bukatzeko, beste galderatxo bat. Euskal eliztarrek merezi ote dute Biblia bat, Euskal Herri osorako izango den Biblia bat, nonnahi eta nornahirekin irakur genezakeen Biblia bat? Noizko geratu zaigu lan hori? Entzun denez, horretarako sortu zen komisioa ez dator bat; eta batzorde hori egon ba dagoelako, ez da inortxo ere lan horretara ausartzen. Edo ausartzen denak, ez du euskalki baterako baizik egiten. Bildur naiz, ez ote garen geratuko sekula sekulatan, ez Biblia eta ez erlijio kultura taxuzkorik gabe. Hau da: orain artean bezalatsu. Atzetik datorren Galiziak, orain goazen bidetik, aurrea hartu behar digu laster. Eta inon esperantza hoberik balitz, esan.

J. ERREKALDE

daduzkate (dauzkate), <b>daukez</b>	gaude, <b>gagoz</b>
dezagun, <b>daigun</b>	genezake, <b>geinke</b>
dezake, <b>daike</b>	nizkioke, <b>neuskioz</b>
digu, <b>deusku</b>	zaigu, <b>jaku</b>
digute, <b>deuskue</b>	zaio, <b>jako</b>
dizkigu, <b>deuskuz</b>	

Froga ezazu zuk zeuk

**BYASS 96**

ona dela izenez eta izanez



**GONZALEZ BYASS**

JEREZ • XÉRÈS • SHERRY



# KRISI KONTSERBADOREA

Neomarxismoa 60. urteetan irten da agerira, baina lehenago formatua da. 20garren urteetan hasi zen buruzten, krisi kontserbadorearen erdian hain zuzen ere. Neomarxismoa ulertzekotan, orduan hasi eta oraindik dirauen krisi kontserbadore honetan barrendu beharko litzateke. Historiaren fase kontserbadore batetan gaudela konprenitu beharko litzateke. (Baina nola? Izugarri progresista garelako ilusioak engainatzen gaitu eta...).

20garren urte aldera izugarrizko ekaitzak harrapatu zuen, «mendebaldeko\* izpiritua» izendatu ohi dena. (Krisia lehenagotik zetorren, noski). Baina hemen, bat batean, irteerarik gabe aurkitzen zen. Lehenengo Gerra Mundialak ordurarteko tradizio politikoak hankaz gora bota zituen: idealismo alemana eta historismoa (ordurarteko pentsamolde nagusiak) birrindu zituen. Frantziako Iraultzaz gerozko Ilustrazioaren tradizio kritikoa lur jo zuen. Politikabide berriak bilatzen ziren (Fronte Herritarrak probatu ziren, faxismoa esperimendu zen, eta abar), pentsamentu berri bat sortu nahi zen, arte berria, etc. Bide berriak bilatzen ziren nonnahi.

Krisialdi guztietan ohi den bezala, gauza guztien kritika latza egiten zen. Eta Ilustrazioaz gerozko pentsamentua kritikoa izan zenez gero, kritika hura\* kritikatzeko: sinesmena galdu zen Ilustrazio kritikoa, demokrazian, arrazoimenean (hain zuzen ere, **Eclipse of Reason** da Horkheimeren liburu baten izenburua, eta Lukácsen ere ba ditu gai honen azterketak). Ilustrazioaren umeak berak izan ziren, Ilustrazioaren baikortasuna\* eta demokraziango sinesmena azkenerako hondatu zutenak: Marxek eta Nietzschek gizarte modernoari egindako kritikak, optimismo arrazionalista hura gezurtatzen zuen, nolabait optimismo huraxe bera inplikatzeko bazuen ere.

Pentsamentu mailan Ilustrazioaren kritika eginda zegoen. Politikaren mailan, Lehenengo Mundu Guduaren ostean\* Ilustrazioa lur jota ageri zen. Monarkiak (Austria, Prusia, Errusia tsarista) erauzi\* bazituzten ere, «demokraziak» orain gauzaez ageri ziren, gerra osteko problemak burubidatzeko. Geroxeago, politikabideetan «de facto» aukera bakarra gelditzen zen: demokraziak (Ilustrazioaren ondarea\*) ala erreakzio faxista.

Egoera honen anbiguitatea garbi ikusi behar da: demokraziak defentsiban daude; baina demokrazia defendatzen denean, instituzioak defendatzen dira, Estatu demokratikoak defendatzen dira, eta ez demokrazia bera. Jadanik\* ez dira hartzen Estatu demokratikoak demokraziarako bide bezala, demokrazia bera bezala baizik.

Bi aldetarako indarrak nabari\* dira. Batetik, «mendebaldeko gizartea» (mekanizista, utilitarista, eta abar) zeharo txikitu\* nahi luketenak: erreakzionariok batzuk,\* eta iraultza absolutua egin nahi luketenak, besteak. Hone-lakoak anarkistek eta artisten artean aurkitzen dira batez ere (surrealista, dadaista eta gainerako). Bestetik, demokrazia (hots, «mendebaldeko gizartea») salbatzearen, ahalegin guztietan enpeinatuak\*: honelako enpeinu\* bat izan ziren Fronte Herritarrak.

«Mendebaldeko kulturaren» esamesak\* inportantzia handia hartu zuen garai honetan. Faxistek mendebaldeko kultura salbatu nahi zuten: Erdi Haroko tradizioetara itzuliz, ordea. Demokratek mendebaldeko kultura **moderno**a salbatu nahi zuten: demokrazia salbatuz. Eta zenbait radikalek, mendebaldeko kulturarekin zer eginik ez zegoela eta, kultura hau xahutu\* egin nahi zuen (demokraziak ere barnean zirela), bizitza sozial eta politiko zeharo berriak eraikitzeko. Denek «salbatzaile» izan nahi zuten.

Tirandura\* hauek, lehenengotik, kontserbadore izateaz beste guztia dirudite, gizarteak beren baitako\* dinamikari begira juzgatu behar baldin badira. Baina faxistek eta radikalek ez dute Ilustrazioaz gerozko desarrolla\* ontzat ematen. Eta, hau ontzat emanik, «salbatu» egin nahi luketen demokratek ere, ikusiko dugunez, Ilustrazioaren emaitza (iraultza) kanonizatzen zuten, kritikaren emaitza kanonizatzen zuten; baina ez zuten kritika sakontzen, hedatzen,\* luzatzen, xehatzen. Ilustrazioaren emaria\* zaintzen zuten, ez zitzaizkion Ilustrazio kritikoa-ri aurrerago jarraitzen.

Parabola batekin adieraz liteke. Aitak lan egin zuen, dirua egin zuen. Semeak ez zuen, diru gehiago egiteko, lanik egin: aitaren irabaziak zaindu besterik ez zuen egiten. Baina, inflazio garaia nola zen, dirua krisian nola zegoen, semea —dirua zaindu bakarrik nahi zuena— pixkana pixkana atzera arruinauz joan zen. Demokrazia nola krisian zegoen, demokrazia zaindu bakarrik nahi zuten gizarteak, gero eta gutiago demokrata bihurtzen ziren.


JOXE AZURMENDI

daude, **dagoz**  
gaude, **gagoz**  
zitzaizkion, **jakozan**

## GALERIA DEL LIBRO

José Angel de Zaballa

Liburudenda  
Euskal liburuak



EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1



# OLENTZARO

—Osaba, osaba! —sartu da Eneko egongelara deiharkara.

—Zer pasatzen jatzu, ba,\* txo? —osabak begiak kazetatik\* aldentuta.

—Begira zer poster politta dakarren azken ANAITASUNAK. Olentzarorena da. Zer deritzozu?

—Ekarzu, ba! Kontxo, egia dinozu; bene benetan ederra da eta oso ondo pintatua gainera. Egiazko artista baten lana, bai horixe!

—Baina, osaba, ez dozu uste, lar\* dotore\* egin dauanik? Guri ikastolan Olentzaro beti gizon tripaundi eta arrote baten antzera erakutsi deuskue; eta hau, berriz, oso begiko\* eta dotorea da.

—Bai, arrazoa dozu, Eneko. Orain arte, zuk dinozunez pintatu da beti Olentzaro; baina... hara, nik neuk behintzat ez deritzot txarto ANAITASUNAK dakarskun\* honi.



—Zergatik ez, ba?

—Olentzaro, dakizunez, aintzinako euskaldun jentilen jaialdi bat zan. Gero, kristautasunaz, jentilen jai hau, urteko egunik laburrena ospatzeko zana, kristautu egin zan eta Jesus jaio berriaren izenean gelditu.

Gure Olentzaro zaharra, lehen, paganoen jaiaren alegoria edo irudi bat zan; baina gero Jesusen jaiotzaren berriemailea bihurtu zan, eta modu honetan iraun dau orain arte euskal herritxoetan.

Dakusazunez,\* beraz, Olentzaro bera oso zaharra da; baina daroazan\* jantzi eta ezagugarriak, berriz, ez. Oraingo Olentzaro arrote hau, esaterako, prakaduna dogu; baina aintzinako euskaldunen artean, prakak barik,\* gona moduko batzuk erabiltzen ziren. Ahoan, gainera, pipa bat dau, eta tabakoa Ameriketatik ekarri zan orain hirurehun urte inguru; beraz, hau ere gauza berri bat da Olentzarorengan. Askok, gainera, makailo bat ipintzen deutsoe, eta hau ere ez da zaharra. Txapela bera, horretara ba-

goaz, azken berrehun urteetatik honakoa da, lehenagoko euskaldunek txapelik ez euken eta.

—Horrekin, denbora bakoitzak Olentzarori sasoi horretako jantziak ipini deutsozala esan gura dozu, osaba?

—Horixe berberori, Eneko. Ohitura hori, gainera, ez da gurea bakarrik. Greko eta erromatarren jainkoak, esate baterako, hasieran nekazari eta artzain batzuen jainkotxo arroteak ziren; baina geroago, herriok kulturaz eta arte kontuan gora joan zirenean, bertako artistek lehen baino dotoreago agertu zituen euren\* aintzinako jainkoak, hareen bizitzá apaingarri askorekin hornituz. Papa Noel, Santa Klaus, Done Nikolas eta antzeko pertsonaiak ere modu berean joan dira dotoretuz, aintzinan arrote xamarrek ziren eta.

—Euskal Herrian, berriz, errege magoak egon dira, ez da?

—Bai zera! Errege magoak, Gaztelatik azken urteotan heldu jakuzan pertsonaia batzuk dira. Gure gazte eta ume denboran ez jaken umeei jostailurik emoten egun horretan. Frantzia aldeko euskaldun umee, bestalde, Papa Noelen aitzakiaz hartzen ditue euren jostailuak, ez erregeengandik.

—Hori hobeto dago. Papa Noelek Gabonetan ekaritzen ditu jostailuak, eta gero denbora asko egoten da oporretan hareekin jolasteko. Erregeek dakarskuezenarako,\* berriz, ikastola hasten jaku osterak\* ere, eta ez dogu ezertarako astirik.

—Orduan hobe, Olentzaroren izenean, Gabonetan ekarriko balira erregaluak Euskal Herri osoan, ez deritzozu?

—Bai, oso ideia ona da, osaba. Holan euskaldun guztiok batasun bat eukiko geunke horretan ere, ez da?

—Horixe. Baina, Olentzaro Gabonetako euskal pertsonaia izan dadin, beharrezkoa da apaina eta dotorea izatea; bestela, denden erakustegietan ez dau inork ipiniko.

—Baina jantzi hori, jatorra ote da?

—Nik baietz uste dot. Begira! Txapela gorria, Zube-roako dantzariena lakoxea; baina goiko izarra elurrezko kristal bat da, zuria, eta borlatxo dotore bi ditu, gainera. Zamarra zuria, haritz hostoaren\* moduko hegal berdeekin. Ba ditu, bestetik, gorostiaren\* hosto politak, Egu-berriaren seinale. Prakak, gainera, beltzak. Erronkariko herri jantzia, egia esan, oso antzekoa da, jaka zuria eta praka beltzak.

—Arrazoa dozu, osaba. Oso jatorra da jantzia bera ere.

—Dendariek ontzat hartzen badabe, ba leiteke laster erakustegi guztietan agertzea gure Olentzaro zahar berri hau.

—Nik baietz uste dot, osaba.

TRAUKO

dabe, **dute**

dau, **du**

deuskue, **digute**

deutsoe, **diote**

deutsoz, **dizkio**

euken, **zedukaten** (zeukaten)

jaken, **zitzaien**

jaku, **zaigu**

jakuz, **zaizkigu**

jatzu, **zaizu**

zitzen, **zitzuten**



# HASTAPENEAN

## ”ADITZA” ZEN

Etxaunen kanten samurtasunez eta tristuraz entzuniko zurrumurrua egia bilakatu\* zaigu: agerian dugu, aditz batuan gipuzkera nagusi gelditu dela. Min hartu nuen, eta ez dut orduz geroztik oraino neure burua guztiz sendatu. Durangoko azokan adizki berriak ikusi nituen, Euskaltzaindiak argitara emandako liburuxkan. Gipuzkera irten da garaile. Gora desarrazoina! Bego! Lepoan har, eta segi aurrera!

Mundua, nonbait, dialektikaren legeaz ari da; eta euskaldunok, bai errealtateari eta bai lurrari atxikiak\* omen garelarik, ez dugu besterik merezi, ez eta, antza,\* bestela egin ahal. Zer dugu, bestela, desarrazoinezko erregulartasun hori? Beharbada, kontsolamendurik falta ez dakigun lorturiko bitxia; euskaldunok holakoxeak gara eta. Zeren **digu** eta **dizu**-rekin batera **zaigu** eta **zaizu** agertzen baitira; eta, Bizkaiko burutik hasi eta ia Euskal Herri osoan erabiltzen diren formak (**jatzu**, **zatzu**, **zaitzu** eta abar) bazterturik, Gipuzkoako partean ere larregi\* esaten ez direnak aukeratu baitira. Hurrean,\* Larramendiri jarraikiz —jesuita bera— arestion\* aipatu dugun burruka dialektikoaren sintesia.

Hala eta guztiz ere, aurrera goaz. Askotan izan ez arren, ba ditugu horregatik geure pozaldiak: egoki dertzagu, kasu,\* azkenean, jarririko gehigarriari. Guk geuk, Iturengo Ramuntxo Joakinek bezala, andreari hauxe esan genioke:

«Ez zionagu erranen sekula nihori,\*  
ez gaitzaion\* inork apezari sala».

Lana handia izan da, eta, antza, emankorra, aditz batzorde horrena. Ez zaio, haatik,\* oraindik hiketari ekin. Eta begira gaduzkate, joera, gutienez, ezagutzen dugulako: **diat** famatua lekuko.\* Giputzaindia behin betiko Euskaltzaindia bilaka dadin —ezen\* ez giputzen handia—, beste euskaldunon pentsabideok, geureok, edo eta bizkaitarronak bederen, errespetatzen diezazkigun. eskatzera ausartzen naiz, beste askok maiz\* egin duten legez.\* Batasuna bai —amore eman dezagun—; baina, mutilok, geure buruak antzutu gabe.

ANAITASUNAn, behintzat, konponbide bat proposatu da, besterik ezean, egoki xamarra ematen duena, **ziat/diat** eta **zitiak/dizkiat** bikotearena, alegia:\* hor zehar —Gipuzkoan, gainera— erabiltzen omen den bikotearena; egokitua beharbada, baina ez orain arte egin den adiztegia baino egokituagoa! Modu berean, bestetik, ikusi ahal ukan\* dugunez, zuketaren arazoa konpon liteke, hots,\* **zizut/dizut** eta **zitizut/dizkizut**. Hala biz\*! Eta hala ez balitz, Jainkoak lagun\* gaitzala, arazo hau ez baita kalabaza batetan sar eta Derioko plazan ager daitezkeenetako.

Azkenez, hariaren muturrak aditz sintetikoaren problema garamatza\* zuzen zuzenik. Fortunari eskerrak, honetan batuago gaude, «batzen» hasi aurretik behintzat; eta «batzen» diot, Bizkaiko **jagok**-aren ondoan **diagok** eta **niagok** kasik Euskal Herri osoan ditugulako, **zegok** eta

**natxegok** Gipuzkoako leku batzuetakoak bakarrik izanez. Batek jakin, ordea, zer aterako! Baina aukera, betiko legez,\* argi dago, orain arteko eginak egin arren.

Zuberotar batzuen aurrean ba zuen gure Etxaun zaharrak ederki kantatu:

**Jauna, zure gradua düzü abokatü,  
zure izpiritia nahiz oküpatü;  
zü ziren jüstiziak bethi nahi dizü  
zure abisen arau prozesak jüjatü.**

(Jauna, zure gradua duzu abokatu,  
zure izpiritua nahiz okupatu;  
zu zaren\* justiziak\* beti nahi zitizu  
zure aburuen\* arabera\* prozesuak jujatu.\*)

**Phartitziarekila deiziet erraiten,  
ünione hunian bethi bizi ziten;  
ene errespetiak deiziet eskentzen,  
jin nintzan bidetik nüzü abiatzen.**

(Partitzearekin dizuet esaten,  
unione onean beti bizi zaitezten;  
neure errespetuak dizkizuet eskaintzen,  
jin\* nintzen bidetik nauzu abiatzen.)

Ba goaz gu ere batasun onaren faborez.

ALTZÜRÜKÜ

dezagun, **daigun**  
diezazkigun, **deiskuzan**  
dizuet, **deutsuet**  
dizkizuet, **deutsuedaz**  
duzu, **da**  
gaitzala, **gaizala**  
gaude, **gagoz**  
genioke, **geunskio**  
nauzu, **naiz**  
zaigu, **jaku**  
zaio, **jako**  
zionagu, **deutsagu**, diogu  
zitizu, **ditu**



**MENCHACA**

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jantzizkiak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI  
Muelle de Uribitarte, 15 BILBO-1





BAI, BAI, GABON SARIA NAHI DU, IHAZ ERE EMAN GENION ETA...



Patxi

EGIA ESATEKO MIN GEHIEN EMAN DIDANA EZ DA IZAM KLUBA BERA ERRETZE, GASOLINAZ EGITEA BAIZIK. HORIXE! DAGOEN ESKASIAZ



ПАЧИ

● Lekeitioko taberna batetan gertatu omen zen. Behin ingeles marinel bat hauxe kontatzen hasi zen:

—Behin nire aitak, itsasoan kolpe bat hartuta, begi bat galdu zuen. Baina balenbarku\* hartako medikuak, balea\* bati berea kendu eta nire aitari ipini zion, eta orduz gero oso ondo dakusa\* begi harekin.

Amorotoko baserritar batek, egun hartan Lekeitiara etorriak, ahoberokada hura\* entzunik, hauxe esan omen zion ingelesari:

—Ez dago txarto; baina gure herriko al baitariak\* behin handi goa egin zuen. Behinola gure aitak haitzur\* kolpe batez behatz lodia ebaki zuen konturatu gabe, eta al baitariak behi bati erro\* punta bat moztu eta aitari oin-nean josi zion.

—Ez da posible! —esan zuen ingelesak.

—Bai, eta hori ez da dena. Harez gero gure aitak, tabernara joaten denean, kafe hutsa eskatzen du, zapata eta galtzerdia erantzita, berak bere behatz loditik esnea botatzen dio eta.

—Hori ikusi egin beharko litzateke —oihu egin zuen ingelesak.

—Bai jauna! —erantzun zion baserritar maltzurak—. Zure aitaren begiaz.

● —Hara! —diotso bezeroak\* jostunari—. Aldez aurretik esan nahi dizut, traje hau hemendik hiru hilabete baino lehenago ezin dizudala ordaindu.

—Horrek ez du ardura. Trankil horregatik.

—Ederki! Noiz etorriko natzaizu trajearen bila?

—Hemendik hiru hilabetetara —jostunak irribarrez.

● Behin emakume itsusi bat gaixorik plantatu zen. Medikua etorri eta haren senarrari ba diotso:

—Egia esateko, zure andrearen aurpegi hori ez zait batere gustatzen.

—Horretan batera gatoz, jauna. Niri ere ez, baina besterik ez du.


dio, deutso  
diotso, dinotso, esaten dio  
dizut, deutsut  
natzaizu, natxatzu  
zion, eutson



Patxi



GURUTZEGRAMA (30)



**Ezker aldetik eskuin aldera:** 1. Puntu kardinala (artikuluarekin).—2. Zerbait egiteko ona dena.—3. Musika.—4. Kontsonantea. Zirikatu, kitzikatu. Bokala.—5. Zuhaitz adarren ernebutzana (alderantziz). Kontsonantea. Izan aditzaren forma (alderantziz).—6. Gauzak erosteko erabiltzen dugu (artikuluarekin). Zuhaitz mota (artikuluarekin).—7. Bokala. Mezaarako erabiltzen da (artikuluarekin). Kontsonantea.—8. Joaten banaiz (alderantziz).—9. Ordaindu beharra (alderantziz).—10. Bete egiten duena.

**Goitik behera:** 1. Gerra, gerla.—2. Nota musikala. Kontsonantea.—3. Ea! Bokala.—4. Kontsonantea. Beti, inoiz. Kontsonantea.—5. Leku batean izan. Kemena.—6. Zaila. Emakumeen jantzia (alderantziz).—7. Zangoek behoko aldean duten bukaera (artikuluarekin). Entsaladan jaten da.—8. Bokala. Bigundu (alderantziz). Kontsonantea. 9. Burutik eseki.\* Kontsonantea.—10. Dolorezko oihua. Bokala.—11. Alferra (alderantziz).

**Goitik behera:** 1. Gudua.—2. Mi.—3. Tirai.—4. H. Uraza.—8. A. Beratu. R.—9. Urka. R.—10. Ail.—11. Nagi. Sekula. T.—5. Egon. Adore.—6. Gaitz. Gona.—7. Oina.

**AZALPENA. Ezker aldetik eskuin aldera:** 1. Hegoa.—2. Gai.—3. Soinu.—4. G. Tentatu. I.—5. Kimu. Z. Gara.—6. Dirua. Urkia.—7. U. Aldarea. N.—8. Banoa.—9. Zor.—10. Betegarri.




Zer erosi duzu txoriarentzat?

EUSKAL SALDA



Goiko koadro horretan Europako zazpi hiri nagusiren izenak daude, zuzenean jarrita. Aurkituko dituzu? Kontuan hartu behar duzu, eskuinetatik ezkerretara, ezkerretatik eskuinetara, goitik behera, behetik gora edo eta zeharretara, diagonalean ere, egon daitezkeela, bai eta elkarren artean gurutzaturik ere.



HIEROGLYPHIKOAREN ERANTZUNA:

Kaola bat

EUSKAL SILDAREN ERANTZUNAK:

Paris, Berlin, Mosku, Londres, Praga, Viena, Helsinki



## HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

## Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

ABANTAILATAN, en ventaja. (ABANTAI-LEAN, en la ventaja).  
 ABURU, eritzi.  
 ADINA, aina, beste, bezainbeste, bezainbat.  
 AGIAN, beharbada, nonbait.  
 AHANTZI, ahaztu, ahaztu.  
 AHOTS, abots, voz.  
 AHUL, makal.  
 AITORTU, ipar Euskal Herrian AITOR-TZEN  
 AITZINAMENDU, desarrollo, adelanto.  
 ALBAITARI, veterinario.  
 ALDARRIKATZE, proclamar, vociferar.  
 ALEGIA, halegia, a saber, es decir, esto es.  
 ALEGIAZKO, alegórico.  
 ALOR, arlo.  
 ANITZ, asko.  
 ANIZTASUN, askotasun, pluralismo.  
 ANTZA, dirudienez.  
 ARABERA, arauera, según, conforme.  
 ARAUERA, arabera, según conforme.  
 ARE, oraindik, aún, encore.  
 ARESTION, oxtion, oraintsu, hace poco.  
 ARETO, sala, salón.  
 ARRAKASTA, éxito, succès.  
 ASABA, arbaso, antepasado.  
 ASKE, libro, libre.  
 ATXIKI, apegado, leal.  
 ATZERA, berriro.  
 AUKERA, hautu, hautapen.  
 AURRERITZI, prejuicio.  
 AUSART, valiente, atrevido, osado.  
 AZTARNA, aztarren, vestigio, rastro.

BA, bada, pues.  
 BAIKORTASUN, optimismo.  
 BAITAKO, -gango, barneko.  
 BAITZPADAKO, beharrezko.  
 BAKAZIOTAN, bakazioz, en vacación.  
 (BAKAZIOETAN, en las vacaciones).  
 BALEA, ballena.  
 BALENBARKU, barco ballenero.  
 BARIK, gabe, en vez de, au lieu de.  
 BATIC BAT, batez ere, bereziki, guztiz ere.  
 BATZU, batzuk.  
 BATZUK, zenbait. (Batzuek aktibo, batzuk pasibo).  
 BEGIKO, simpático.  
 BEHAKO, begirada.  
 BEHARREZ, con designio, con intento.  
 BER DENBORAN, denbora berean.  
 BER GISAN, gisa berean, modu berean.  
 BERRIKETARI, berriemalle, albistari, reportero.  
 BERRIKITAN, oraindik oraintsu, recién-temente.  
 BERTSU, casi el mismo.  
 BESTEKO, bezainbesteko.  
 BEZERO, cliente.  
 BIDE, beharbada, nonbait. (Bide du = duke).  
 BIKOITZE, duplicar, duplicación.  
 BILAKAERA, evolución.  
 BILAKATU, bihurtu.  
 BILKURA, bilera, reunión.  
 BITXI, singular, original.  
 BIZ, izan bedi.  
 BULEGO, oficina, bureau.

DAKARSKU, ekartzen digu (deusku).  
 DAKARSKUEZ, ekartzen dizkigute (deus-kuetz).  
 DAKUSA, ikusten du.  
 DAKUSAGU, ikusten dugu.  
 DAKUSAZU, ikusten duzu.  
 DANTZUGU, entzuten dugu.  
 DARAMATE, deramate, daroe.  
 DAROAZ, daramatza, eramaten (eroaten) ditu.  
 DIREA, dira + a. (A bokala, galdeetan eransten zailo aditzari).  
 DESARROILO, altzainamendu, desarrollo, développement].  
 DEUS, ezer.  
 DIEKE, die (deutse) nonbait.  
 DJREA, dira + a. (A bokala, galdeetan eransten zailo aditzari).  
 DOHAINIK, dohan, doharik, gratis.  
 OTORE, elegante.  
 DUDATZEKE, dudatu gabe.  
 DUKE, du nonbait, bide du.

EBATZI, resuelto. (EBATSI, robado).  
 ELABERRI, novela, roman.  
 EMARI, emaitza.  
 ENGAIATU, comprometido, engagé.  
 ENPEINATU, lehiatu, empeñado.  
 ENPEINU, lehiadura, empeño.  
 ENTZUNDAKUAN, entzun eta gero.  
 ERABAT, guztiz, zeharo.  
 ERAKUNDE, institución, organismo, entidad.  
 ERAUZI, jauz erazi, hondatu, funditu.  
 ERDIETSI, lortu.

EREDU, modelo.  
 ERRO, pezón de la ubre, pis de la mamele.  
 ERRUDUN, hobendun, hobenduri.  
 ESAMESA, erran-merran.  
 ESEKI, esegi, eskegi, colgado, pendu.  
 ESKUALDE, comarca, región; lado, dirección.  
 ESKUALDEKATZE, regionalizar.  
 ETSIPEN, desesperanza.  
 EZEN EZ, que no, y no.  
 EUREN, beren.

FABORETAN, en favor. (FABOREAN, en el favor).  
 FITS, zipitiz, izpi, miko, pizca.  
 FROGATU, probado, demostrado.  
 FROGATZE, probar, demostrar.

GABE, en vez de, en lugar de, au lieu de.  
 GALERA, galtze.  
 GARAMATZA, garoaz, eramaten (eroaten) gaitu.  
 GIATZAION, ez giatzaiion inork apezari sala, para que nadie nos denuncie al cura.  
 GISA, bezala, modura.  
 GORABEHERA, a pesar, malgré.  
 GOROSTI, acebo, houx.  
 GUPIDAGABEKI, sin consideración.  
 GURAGO, nahilago.

HAATIK, hala ere.  
 HAINZAKOTZAT, en consideración.  
 HAITZUR, azada, pioche.  
 HALABER, igualmente, así mismo.  
 HANKA, zango.  
 HARMADA, ejército.  
 HASERA, haste, hastapen.  
 HATZAMAR, erhi, dedo, doigt.  
 HATZEMAN, encontrar, captar.  
 HAUK, honeek. (Hauek aktibo, hauk pasibo).  
 HAZIL, noviembre.  
 HEDATZE, zabaltze.  
 HEL, ora, agarrar, saisir. (HELDU, oratu, agarrado, saisi).  
 HELDU, oratu, agarrado, saisi.  
 HERREN, cojo, boiteux.  
 HEZKUNTZA, hezketa, educación.  
 HOBETS, preferir. (HOBETSI, preferido).  
 HORIK, hoik, horreek. (Horiek aktibo, horik pasibo).  
 HOSTO, horri.  
 HOTS, a saber, es decir, esto es.  
 HURA, ha.  
 HURRAN, hurren, hurrengo.  
 HURREAN, beharbada; nonbait, agian.  
 HURRENGO, hurren, hurran.

IA, kasik.  
 IDEIALARI, idealista.  
 IDORO, edren, aurkitu.  
 IKERTZAILA, investigador.  
 IRAGAN, igaro, pasatu.  
 IRAGARTZE, anunciar, predecir.  
 IRAIN, injuria, ofensa.  
 IRATO, ito erazi.  
 IRITXI, heldu.  
 IRRIKATZE, desear vivamente.  
 ISLATU, reflejado.  
 ISTRIPU, accidente.  
 ITXAROTE, Iguirikatze.  
 ITZAL, amata, iraungi, apagar.  
 IXURI, vertiente, versant.  
 IZURRI, peste.  
 IZURRITE, temporada de peste.

JADANIK, ya.  
 JARRERA, actitud, postura.  
 JASAN, soportado, aguantado.  
 JAZO, gertatu.  
 JAZOERA, gertaera, gertakari.  
 JIN, etorri.  
 JUJATU, juzgatu.  
 JUSTIZIA, tribunal de justicia.

KASU, esate baterako, adibidez.  
 KAZETA, periódico, journal.  
 KAZETARI, periodista, journaliste.  
 KEXAZ, con queja, quejándose.  
 KOKATZE, situar.

LAGUN, ayudar. (LAGUNDU, ayudado).  
 Aditz honek akusatiboa eskatzen du.  
 LAR, larregi, sobera, gehiegi.  
 LARREGI, gehiegi, sobera.  
 LEGEZ, lez, bezala.  
 LEHEN, lehenbiziko, lehenengo.  
 LEHENENGO, lehen, lehenbiziko, lehen-dabiziko.  
 LEHIA, afán, empeño.  
 LEKUKO, testigu.  
 LILURA, encanto, fascinación.  
 LORPEN, erdiespen, logro, réussite.

MAIZ, sarri.  
 MANTXU, maingu, manco.  
 MENDEBALDE, mendebal alde, occidente.  
 MEZU, mensaje.

NABARI, evidente, notorio, patente.  
 NABARI ERAZI, destacado.  
 NABARI IZAN, advertirse, notarse, percibirse.  
 NAHIKARI, gurari, deseo.  
 NIHOR, inor.

OHATZE, cauce, lit.  
 OHIZKO, habitual, tradicional.  
 ONDARE, herencia, héritage.  
 OPARO, naharo, abundante.  
 ORMA, pared. (HORMA, hielo, glace).  
 OSTEAN, ondoan, ondoren.  
 OSTEKO, ondoko.  
 OSTERA ERE, berriro.

PAILASO, zanpantzar, payaso, clown, bouffon. (Ikus Tournier-Lafitterren «Le-xique Français-Basque»).

SOBERA, lar, larregi, gehiegi.  
 SOS, diru.

TAMAL, pena, sentimiento.  
 TANKERA, estilo.  
 TIRANDURA, atezamendu, tensión.  
 TXAKUR TTIKI, céntimo.  
 TXIKITU, destrozado, desmenuzado, destruido.  
 TXUNDIGARRI, harrigarri, estonagarri.

UKAN, izan. (Ukan aktibo, izan pasibo).

XAHUTU, hondatu, funditu.  
 XARMANT, zoragarri, encantador.  
 XUME, sencillo, humilde.

ZAIROKE, zaio (jako) nonbait.  
 ZAREN, zauden, zagozan.  
 ZERAMATEN, eramaten (eroaten) zuten.  
 ZIK, jok, dik, du.  
 ZINEZ, benetan.  
 ZUR, egur.  
 ZUZPERTZE, reavivar.

## HITZAK ETA ESALDIK

## BESTE ALDIZKARIETAN AGERIAK

Baitezpadakoa\* izanen da euskara batu bat erabiltzea gure idazlanetan. ZABAL.

Behin baino gehiagotan entzun duguna da, euskaldungo berri bat sortu eta eraiki beharrez\* lan eta lan ari direnak, ideialari\* huts eta burubero batzu\* baizik ez direla. ZABAL.

Bi inperialismo, erdi etsai erdi anaia, hor ba dabilta, nor bere eskualdetik,\* beste herriak menperatu beharrez.\* ZABAL.

Lehen\* behako\* batean berean ikusiko dugu, katalanak gure bide bertutik\* doazela. ZABAL.

Hastetik,\* horien borroka ber\* denboran sozialista da eta abertzalea. ZABAL.

Baldin, jende xehearren zuhurtziak dioen bezala, jaten ez duenak ez badu pentsatzen, ber\* gisan erran daiteke, pentsatzen ez duenak ez duela jaten. ZABAL.

Gisa honetako Unibertsitatea lehen aldiz egiten zelarik, ez dugu dudatzen, inportantzia handiko urrats bat emana izan dela euskal kulturaren faboretan.\* Lehen fisik\* ez baitzen, orain ba da zerbait. ZABAL.

Oligarkiak demokrazia onhartzan du, bere abantailatan\* delarik. ZABAL.

Jende anitz\* bildu da Unibertsitate honen okasioz. Ez edozein jende, euskal kulturagintzan biziki interesatua den jendea baino: nolabait erraiteko, jende «bustia», engaiatua.\* ZABAL.

Iduritzen zaigu, jokabide hau dela demokratikoena hurren\* Unibertsitaterako. ZABAL.

Sobera\* ez luzatu nahiz, honetan utziko dugu sail hau, hurren\* zenbakian xeheki aipatuko dugula erranez. ZABAL.

Unibertsitate honetan ikusi dugu, gure herriaren historia eta ohiturak ez dizkigutela erakatsi, nahikaririk\* ez zelakotz. ZABAL.



# Grezia zaharra, beti harrigarri

Dakigunez, Mendebaldeko\* zientzia Egipto eta Babilonian sortu zen. Han eman zituzten Geometriak eta Astronomiak beren lehen pausoak; baina, egia esan, pauso hauk ez ziren zientifikoegiak izan. Bai Egipton eta bai Babilonian, jakintza apezten eskuetan zegoen: ez zen harriz gizonen egin beharra legez,\* Jainkoen errebelazioa bezala baizik.

Greziar indar berri bat hartu zuen zientziak, eta hau zenbait arrazoinengatik. Batetik, zientziak tresna egokiak behar zituen lanerako, eta tresna hauk\* Egiptotarrek eta Babiloniarrek prestaturik zeuden. Beste arrazoin bat ere ba zen, eta, beharbada, aurrekoa baino garrantzitsuagoa: Jakintza apezten eskuetatik laikoentara iragan\* zen, eta gertaera honek zientzi metodoaren desarroilatzea bultzatu zuen. Ordurarte Jainkoen errebelazioaren ondorioa baino ez zena, orain gizonen kreative lan eta propietate bihurtu zen.

## MILETOKO TALES

Lehen zientzizigizonen artean, Talesen izena ezin dezagenu utz aipatu gabe. Injinadore, astronomo, matematikari eta abar izanik, haren jakintza zientzi arlo guztietara heltzen zen.

Ondoko jazoera\* entzundakoan,\* ez du inork ukatuko, gaitasun handiko injinadorea izan zenik. Kresoren harmadak\* Halys hibaia, busti gabe, iragan zezan, haren korronea desbidatu egin zuen Talesek, eta, harmada osoak ohatze\* zaharra iragan ondoren, berriro eraman zuen hibaia lehengo bidara.

Astronomo ona ere izan zen, beste jazoera honetan ikusiko dugunez. Babiloniarra egin zituèn bidaietan, eklipseak iragartzen\* ikasi zuen. Gero bere sorterrian fama handia lortu zuen, eklipse bat iragarri zuelako. Ikus dezagun nola gertatu zen. Medoak eta Lidioak burrukatzen ari zirelarik, arratsalde goizean eguzkia goibeltzen hasi zen eta eguna gaua baizen ilun bihurtu zen, Talesek iragarri zuen legez.\* Orduan burrukalariak gudua geldierazi egin behar ukan\* zuten, eta, Jainkoen nahia zelakoan, beren artean bakea izenpetu zuten.

Matematika arloan ere Tales oso trebea izan zen. Hori frogatzeko,\* beste gauza askoren artean hor dugu haren teorema famatua, geometriaren aitzinamendurako\* hain oinharri trinkoa izan dena.

## PITAGORASEN ESKOLA

Talesen ondotik Pitagoras aipatu behar dugu. Pitagorasek Matematika landu zuen, eta eskola berezi bat sortu zuen arlo horretan. Gainera, Mendebaldeko\* zabaldu zuen zientzia, bere eskola Italiako hegoaldean finkatu baitzuen.

Eskola hori aipagarria da mila gauzogatik. Gaur eguneko fraide komunitate baten antzeko zerbaitekin. Gauza guztiak denek ziren: jakintza, filosofia, dirua... Eskolakoak heriotze osteko\* bizitza baten esperantzan bizi ziren. Arautegi moral bateko erregelak betetzen zituzten. Eta abar. Baina orain guri axola zaizkigun ideiak, ez dira

erlijioari buruzkoak, zientziakoak baizik. Goazen, bada, aurrerantz.

Eskolaren eginkizuna, taldearen jakintza zabaltzea zen. Baina jakintza hau eskolako artean baino ezin zitekeen zabal. Eskolatik kanpoko artean asmakuntza berriak zabaltzen zituenak, hiltzea merezi zuen. Eta ez pentsa, hau gezurra denik. Begira! Pitagorasen eskolako bi gizon itsasoan iratoak\* izan ziren, taldearen aurkikuntza batzuk\* salatu zituztelako: bata, Hipaso izenekoa, solido erregular baten aurkikuntza salatu zuelako, eta bestea (ez dakigu honen izena),  $\sqrt{2}$  numeroaren neurtezintasuna salatu zuelako. Eta, bi kasuotan, hiltzea merezia zutela esan omen zen.

Egungo ikertzaileen\* eritziz, talde honek aurkitu zuen Pitagorasen teorema famatua —gehienek ustez, Pitagorasek berak—. Hala ere, dirudienek, 1700 urte Kristo aurretik Babiloniarrek ba zuten teorema honen berri. Baina aurkikuntza hori guztiz ahantzirik\* eta galdurik zegoen, eta teoremaren berraurkitzea eta zientzian sartzea Pitagorasen eskolakoei zor diegu.

## ARKITAS ETA KUBOAREN BIKOIZTEA

Azkenik, beste jazoera bat aipatu nahi dut, hau ere Pitagorasen eskolaren barnekoa.

Arkitas izeneko batek, kuboaren bikoiztea\* ebatzi\* zuen. «Delos-eko problema» edo kuboaren bikoiztea, problema famatu bat zen, eta ordurarte ebatzi gabea. Ikus dezagun zein zen problema eta beronen famaren zergatikoa.

Kristo aurreko 430. urtean guti gorabehera, izurrite\* haundi bat jazo\* zen Atenasen. Atenastarrek, Delosen zegoen Apoloren tenplura zenbait mezulari bidali zituzten, kontseilu bila. Orakulu emaileak, Apoloren aldarearen tamaina bikoizteko agindu zien. Aldarea kubikoa zen, eta Atenastarrek bikoiztu egin zuten bai luzeera, bai zabalera eta bai altura. Hala ere, izurria\* gero eta gogortzenago ari zen. Berriro joan ziren orakulu emaileagana, eta honek zera esan zien, aldarea, bi bider handiago gabe,\* zortzi bider handiago egina zutela.

Problema hau orduko metodoez ebaztea ez zen batera erraza; baina Arkitasek, hirurogei bat urte geroago, ebatzi egin zuen, horrela bere eskolako trebetasuna erakutsirik.

Oharpen bat egin nahi nuke Apoloren tenpluko apezten zehurtasunari buruz. Haien ba zekiten problema hura zaila zela, bai eta, ebatzi baino lehenago, izurria gaintua izanen zela ere.

J. R. ETXEBARRIA

dezagun, **daigun**  
dezakegu, **daikegu**  
diegu, **deutsegu**  
zaizkigu, **jakuz**  
zezan, **eian**  
zeuden, **egozen**  
zien, **eutsen**  
zitekeen, **eitekean**